2024 JARDUERA PLANA

EUSKO GANBERAK



# 2024 JARDUERA PLANA

EUSKO GANBERAK

EUSKO GANBERAK




**JOSÉ IGNACIO ZUDAIRE**
BILBOKO GANBERAKO PRESIDENTEA

**GREGORIO ROJO**
EUSKO GANBEREN PRESIDENTEA
ARABAKO GANBERAKO PRESIDENTEA

**MAURICIO ARREGUI**
GIPUZKOAKO GANBERAKO PRESIDENTEA

# PRESIDENTEAREN GUTUNA

**GREGORIO ROJO**
EUSKO GANBEREN PRESIDENTEA ETA ARABAKO GANBERAKO PRESIDENTEA

Jarraian aurkezten dugun jarduera-planak 2024an Eusko Ganberen lana markatu duten jarduketa-ildo nagusiak jasotzen ditu, baita ere denbora horretan egin diren ekintzen emaitzak.

2024. urtea geopolitika global gero eta konplexuagoak eta ziurgabeagoak markatu dute. Zenbait gatazka luzatu dira, hala nola Ukrainako gerra, Ekialde Hurbilean tentsioak izan dira, baita ere botere-oreken aldaketak nazioartean, eta horrek guztiak jarraitzen du ondorio nabarmenak izaten, humanitarioak, sozialak eta ekonomikoak. Horrek guztiak are garrantzi handiagoa ematen dio gure mugez harago begiratzeari, ulertze aldera munduko gertakizunek zelan eragiten dieten gure ekonomiari, gure enpresei eta, azkenean, gure bizitzei.

Egoera hori ikusita, Eusko Ganberak erakundea gehiago ahalegindu da euskal enpresei laguntzeko merkatu berriak bilatzen, dibertsifikatzen eta hazten. Programak sustatu ditugu zenbait sektoretarako, eta lan handia egin dugu gure enpresei egungo egoeraren erronkei aurre egiteko aukera emango dieten baliabideak lortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europaren lehentasun estrategikoekin bat, garapen ekonomiko jasangarrirako funtsezko ekimenak sustatzen jarraitu dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet, bihotzez, administrazio publikoei, 2024an zehar formalizatutako hitzarmenen bitartez Eusko Ganberekiko berriz ere agertu duten konfiantzagatik. Haien babesagatik ez balitz, gure ekintzetako zenbait ez lirateke posible izango.

Enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi gisa dugun rola indartu egin da, enpresa-sareak dituen beharren inguruan dugun ezagutza sakona oinarri. Zeharkako proiektuen bitartez, jarraitu dugu tresna lehiakorrak ematen gure ekonomiaren sektore guztiei, nola industria hala zerbitzuak, baita merkataritza eta turismoa ere.

Europak aurrean dituen erronka nagusiak –eraldaketa digitala, energia-trantsizio bidezkoa, jasangarritasuna eta inklusioa– gure jarduera-ildoen erdigunean daude. 2024an zehar, gaitasun digitalen inguruko prestakuntza sustatu dugu, nazioartekotzea dibertsifikazio-bide gisa indartu, enpresen arteko lankidetza bultzatu eta enpresei lagundu eredu jasangarriagoetarantz eta erresilienteagoetarantz egin behar duten bidean.

Halaber, Eusko Ganberen egokitzeko gaitasuna funtsezkoa izan da berriz ere. Eguneratuta egon gara araubide esparru berrien aurrean, bereziki Europako eremuari dagokionez, eta malgutasunez erantzun diegu ingurune ekonomiko globalaren aldaketei. Eskerrik asko, bihotzez, euskal enpresa guztiei; aurten ere konfiantza handia erakutsi duzue guregan.

Ezin izango genuke egiten duguna egin askotariko eragile ekonomiko, sozial eta lurraldekoen laguntzagatik ez balitz, nola tokiko mailan hala estatuan eta nazioartean. Lankidetza hori funtsezkoa izan da –eta jarraitzen du izaten– aurrean ditugun erronkei elkarrekin aurre egiteko.

**Ziur nago ezen, elkarrekin lan eginez gero –enpresak, administrazioak eta Eusko Ganberak–, gure lurraldea indartzen jarraituko dugula, baita bermatzen ere Euskadirentzako etorkizun lehiakor, jasangarri eta berritzaile bat. Gure oinarri enpresarialak berriz ere frogatu du sendoa dela eta egokitzeko gaitasuna duela, eta funtsezko oinarria izaten jarraituko du aurrerapen kolektiboko.**

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Eusko Ganberetako gobernu-organoak osatzen dituzten enpresei eta kontsulta-batzordeetako kide diren guztiei. Zuen inplikazioa, konpromisoa eta zintzotasuna berebizikoak dira aurrera egiten jarraitzeko.



# ZER DA
## EUSKO GANBERAK?

**Lankidetza publiko-pribatua lehiakortasunerako giltzarri den ingurugiro batean, Eusko Ganberak lankidetza hori kudeatzeko beharrezko tresna gisa kokatzen da.**

Euskal Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko ganberak oinarri pribatua duten zuzenbide publikoko korporazioak dira, eta administrazio publikoekiko lankidetza-organo gisa jarduten dute.

Apirilaren 1eko 4/2014 Legeak eta maiatzaren 26ko 76/2015 Dekretuak araututa daude, eta Eusko Jaurlaritzako Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa Sailaren babespean.

1999an, Eusko Jaurlaritzarekin solasaldia errazteko eta sinergia operatiboak aprobetxatzeko, Eusko Ganberak aliantza sortu zen, eta presidentetza bi urtean behin txandakatzen da.

Helburuek gizartean eta ekonomian duten garrantzia dela eta, legeak enpresa guztiak ganberen erroldari automatikoki atxikitzea ezartzen du. Ordezkaritza handiena duten enpresa-instituzioak dira; izan ere, Lurralde Historiko bakoitzeko enpresa guztiak erakunde horietako kide dira, eta demokratikoki hautatzen dituztel beren gobernu-organoak. Zentzu horretan, Eusko Ganberek enpresen interes orokorrak ordezkatzen dituzte, eta, hala dagokionean, interes orokor horiekin bat datozen interes sektorialak edo bereziak.





Eusko Ganberek ahalmena dute administrazio publikoaren eta enpresen arteko entitate bitartekari gisa jarduteko, eta enpresa-sare osoa ordezteko, ez bakarrik enpresa edo saltoki espezifiko batzuk. Gainera, legez ahala du administrazio publikoekin hitzarmenak egiteko.

# EUSKO GANBEREN FUNTZIO NAGUSIAK

## Eusko Ganberen funtzio nagusiak, 4/2014 Legearen arabera

**Legeak aitortutako administrazio-funtzio publiko nagusiak:**

- Jatorri-ziurtagiriak eta merkataritza-trafikoko dokumentuak ematea.
- Kanpoko merkataritzari laguntzeko eta suspertzeko jarduerak garatzea.
- Prestakuntza.
- Enpresen errolda publikoa kudeatzea.
- Ekintzailetza.
- Merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen eta, kasua bada, nabigazioaren lehiakortasuna handitzeko jarduerak egitea eta plan publikoetan laguntzea.
- Ekonomia digitalaren ezarpena bultzatzea.
- Turismoa sustatzen laguntzea, administrazio publiko eskudunekin elkarlanean.
- Administrazio Publikoen aholkularitza-organoa izatea merkataritza, industria, zerbitzuak eta nabigazioa garatzeko.
- Azokak eta erakusketak antolatzen laguntzea eta sustatzea.
- Enpresekin laguntza-programa publikoak izapidetzea.

**Legeak aitortutako funtzio nagusi pribatuak:**

- Arbitrajea eta bitartekaritza.
- Azpikontratazio-poltsak.
- Lehia askean, merkataritza, industria, zerbitzuak eta nabigazioa defendatzen, babesten edo sustatzen laguntzeko zerbitzuak ematea.

# EUSKO GANBEREN JARDUERA NAGUSIAK GAUR EGUN

- Nazioartekotzea: Euskal enpresak nazioartekotzeko hainbat programa eta zerbitzuri laguntza ematea, merkataritza-ganberen nazioarteko sarearen laguntzarekin.
- Logistika bultzatzea.
- Prestakuntza eta garapena.
- Merkataritzari eskainitako arreta: Sektorearen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, topaketa, tailer, lehiakortasun-diagnostiko, merkataritza nazioartekotzeko programa, digitalizazio eta abarren bidez.
- Ekintzailetza eta enpresen eskualdaketak (merkataritzaren eta turismoaren sektoreak).
- Enpleguari eskainitako arreta.
- Azpikontratazio industriala.
- Digitalizazioa.
- Jasangarritasuna.
- Aireportuetako dinamikari laguntzea.
- Merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigaziorako interesgarriak diren gaiei buruzko jardunaldiak eta topaketak antolatzea.
- Arbitraje- eta bitartekaritza-zerbitzuak (ganbera bakoitzeko arbitraje-gorteak).
- Esportaziorako dokumentazioaren kudeaketa (jatorri-ziurtagirien izapideak, ATA koadernoak, salmenta askeko ziurtagiriak, eta abar).
- Tokiko ekonomiari buruzko ikerlanak egitea.
- Nazioarteko sareetan parte hartzea.

# ADIERAZLEAK 2024

**15.547**

Eusko Ganberetako zerbitzuak erabiltzen dituzten **enpresak.**

**3.868**

Eusko Ganberen programetan eta ekimenetan parte hartzen duten **saltokiak**.



**1.065**

Digitalizazioari buruz hartutako **kontsultak.**

**546**

**EusCommerce** programako saltokiak merkataritzaren digitalizazioa sustatzeko.

**16.711**

Izapidetutako **jatorri-ziurtagiriak.**

**11.119**

Prestatuta dauden **ikasleen** kopurua.

**65**

Egindako **webinarrak,** digitalizazioan espezializatutakoak.

**1.670**

enpresa **nazioartekotzen** lagundu ditu Eusko Ganberak-ek.

**874**

Eusko Ganberen programetan eta ekimenetan parte hartzen duten saltokiak.



**321**

**Enpresa sortu** berriak.

**1.004**

Emandako **prestakuntza-ekintzak.**

**131**

**Nazioarteko sustapen-ekintzak.**

## PROIEKTU BERRIAK:

- **Arku Atlantikoko** lantaldea martxan jartzea.
- **Jasangarritasun-kluba** eta -batzordeak eratzea.
- **Prestakuntzarako** errotzeprogramak.

# EUSKO GANBEREN ORDEZKARITZA

**Eusko Ganberek hainbat foru eta erakundetan dute ordezkaritza,** eta horietako batzuk honako taula honetan jasota daude:

| ERAKUNDEA | NAGUSI DUEN ERAKUNDEA |
| --- | --- |
| Euskoiker fundazioa | Bazkide sortzaileak, EHUrekin eta hiru foru-aldundiekin batera. |
| Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia | Eusko Jaurlaritzak sustatutako elkartea, non enpresek, erakunde zientifiko-teknikoek, enpresa-erakundeek eta administrazio publikoek hartzen baitute parte. Ohorezko presidentetza lehendakariaren esku egongo da. |
| SPRI – Enpresa Garapenaren Euskal Agentzia | Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Kontsumobide, Kontsumoko Euskal Institutua | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea | Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza. |
| EAEko Aireportuak Koordinatzeko Batzordea | Garraioko Idazkaritza Nagusia, Espainiako Gobernua. |
| ENEK – Enpresak Nazioartekotzeko Euskal Kontseilua | Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| 2021-2027 FEDER EAEko Programaren Jarraipen Batzordea | Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza, Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua | Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Euskadiko Turismo Mahaia | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Euskal Estatistika Kontseilua | Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua | Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Merkataritzako Aholku Batzordea | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Eusko Jaurlaritza. |
| Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak | Justizia eta Giza Eskubideen Saila, Eusko Jaurlaritza. |



# OSOKO BILKURAREN OSAERA

EUSKO GANBERAK

## ARABAKO GANBERA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | AERNNOVA AEROESTRUCTURAS ALAVA, S.A.U. | 17. | LAGUNKETA ESTUDIOS CONSTRUCCION, S.A. |
| 2. | AERNNOVA AEROSPACE, S.A.U. | 18. | LAUDIO SOINU, S.L. |
| 3. | ARATUBO, S.A.U. | 19. | MARKET INTELLIGENCE S.L |
| 4. | BACOMAT, S.A. | 20. | MERCEDES BENZ ESPAÑA, S.A.U. |
| 5. | BODEGAS DE LOS HEREDEROS DEL MARQUÉS DEL RISCAL S.L. | 21. | MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. |
| 6. | BODEGAS LUIS CAÑAS, S.A | 22. | OMEGA ELEVATOR, S.A. |
| 7. | CAJA LABORAL POPULAR COOPERATIVA DE CREDITO | 23. | PFERD RÜGGEBERG, S.A. |
| 8. | CENTRO INTERNACIONAL DE NEGOCIOS SEAVI, S.L | 24. | RAMONDIN CAPSULAS, S.A. |
| 9. | DESTILERIAS MANUEL ACHA FABRICA DE LICORES S.A. | 25. | SERIGRAFÍA ALAVA, S.A. |
| 10. | EGA MASTER, S.L. | 26. | SERVICIOS DE COCHES DE LUJO, S.L. |
| 11. | ESTAMPACIONES RUBÍ, S.A.U. | 27. | SNA EUROPE INDUSTRIES IBERIA, S.A. |
| 12. | EXPLOTACIONES SUBIJANA DE ALAVA, S.A. | 28. | TUBOPLAST HISPANIA, S.A.U. |
| 13. | FLANKER MOBILIARIO, S.A. | 29. | TUBOS REUNIDOS INDUSTRIAL S.L.U. |
| 14. | FUNDACION BANCARIA VITAL – VITAL BANKU FUNDAZIOA | 30. | ZIKOTZ, S.A. |
| 15. | GUARDIAN LLODIO UNO, S.L. | 31. | ZORELOR, S.A. |
| 16. | KUTXABANK, S.A. | | |

## BILBOKO GANBERA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | AFIANZA GLOBAL SERVICE, S.L. | 22. | EL CORTE INGLÉS, S.A. |
| 2. | AGENCIA MARÍTIMA CONDEMINAS BILBAO, S.L. | 23. | ENTELGY IBAI, S.A. |
| 3. | ALKORA EBS CORREDURÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.U. | 24. | EQUIPOS ELÉCTRICOS, S.L. |
| 4. | ALTUNA Y URIA, S.A. | 25. | EROSKI, S.COOP. |
| 5. | AMESA DESARROLLO INDUSTRIAL, S.L. | 26. | FLOTANOR, S.L.U. |
| 6. | ARANZAZU, S.A. | 27. | GRUPO TAMOIN, S.A. |
| 7. | ASTILLEROS MURUETA, S.A.U. | 28. | IBERDROLA ESPAÑA, S.A. |
| 8. | BAHÍA DE BIZKAIA GAS, S.L. | 29. | INDUMETAL RECYCLING, S.A. |
| 9. | BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. | 30. | INGUKON, S.L. |
| 10. | BERGÉ MARÍTIMA BILBAO, S.L. | 31. | ISLA DE LOTO, S.A. |
| 11. | BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA | 32. | LA CONFITERÍA DE BILBAO, S.L. |
| 12. | BIOLID IG, S.L. | 33. | LAURA DEL MAR ZORRILLA FERNÁNDEZ |
| 13. | BIOTERMIAK ZEBERIO 2009, S.L. | 34. | LEAN PRESS NORTE, S.L. (EXTINGUIDA) |
| 14. | BOSLAN INGENIERÍA Y CONSULTORÍA, S.A. | 35. | LOINTEK INGENIERÍA Y TÉCNICAS DE MONTAJES, S.L. |
| 15. | CEBEK | 36. | METALÚRGICA MARINA, S.A. |
| 16. | CEMENTOS LEMONA, S.A. | 37. | MIREN ITXASO ZELAIA ZORRILLA |
| 17. | CEMVI CATENA, ELEVACIÓN, MANUTENCIÓN VICINAY, S.A. | 38. | MIREN IZASKUN BARAIA-ETXABURU REKALDE MIREN IDOIA BARAIA-ETXABURU REKALDE C.B. |
| 18. | COMPAÑÍA DE REMOLCADORES IBAIZABAL, SAU | 39. | NAVACEL PROCESS INDUSTRIES, S.A. |
| 19. | CSP IBERIAN BILBAO TERMINAL, S.L. | 40. | PELUQUERÍA ILEA, S.L. |
| 20. | CYCASA CANTERAS Y CONTRUCCIONES, S.A. | 41. | PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A. |
| 21. | DISEÑO INTERIORISMO INFORMÁTICA OFICINAS, S.A. | 42. | RESTAURANTE LA ESCUELA, S.L. |

43. S.A. DE DESCONTAMINACIÓN Y ELIMINACIÓN DE RESIDUOS
44. SARASKETA LACASA, DIEGO
45. SERVICIOS GENERALES MARÍTIMOS, S.A.
46. SIDENOR ACEROS ESPECIALES, S.L.
47. SUTXOIN, S.A.
48. TECMAN FACILITY SERVICES, S.L.
49. TECUNI, S.A.U.
50. TORNILLERÍA LANDALUCE, S.A.
51. VECTALIA LUJUA TXORIERRI MUNGIALDEA, S.A.
52. VIUDA DE SÁINZ, S.L.

## GIPUZKOAKO GANBERA

1. ADEGI
2. AMPO, S.COOP
3. ARCELORMITTAL OLABERRÍA-BERGARA, S.L.U.
4. AUTORRECAMBIOS GOYERRI, S.L.
5. BANCO SABDELL, S.A.
6. BASMODEC, S.L.
7. BASQUE CULINARY CENTER HEZKUNTZA FUNDAZIOA
8. BERRIUP,S.L.
9. BILDUTRUCK, S.A.
10. BIONA CARPINTERÍA, S.L.
11. CAF, S.A
12. CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.
13. CASA ECEIZA, S.L.
14. CESTERO INSTALACIONES, S.L.
15. CONSTRUCCIONES MECÁNICAS JOSE LAZPIUR, S.L.U.
16. ELMUBAS IBERICA, S.L.
17. ESTIBADORA ALGEPOSA, S.A.
18. EUSKABEA, S.L.
19. FAGOR ARRASATE, S.COOP
20. FEDERACIÓN MERCANTIL DE GIPUZKOA
21. FUDACIÓN BANCARIA KUTXA- KUTXA BANKU FUNDAZIOA
22. FUNDACIÓN JOSE MATÍA CALVO
23. FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA
24. GRUP ULMA, S. COOP
25. GRUPO ORMAK
26. GRUPO TTT
27. GRUPO UVESCO
28. GRUPO WISCO
29. GUREAK

| | |
|---|---|
| 30. | HINE RENOVABLES, S.L. |
| 31. | I-DE REDS ELÉCTRICAS INTELIGENTES, S.A. |
| 32. | INGETEAM INDAR MACHINES, S.A. |
| 33. | INTERALLOYS & INVESTMENT, S.L. |
| 34. | IRIZAR, S. COOP |
| 35. | JOYERÍA GONZÁLEZ LARRAURI, S.L. |
| 36. | JULEN MAIZ |
| 37. | KUIK DIGITAL SOLUTIONS |
| 38. | KUTXABANK, S.A. |
| 39. | LABORAL KUTXA |
| 40. | LACOR INDUSTRIA DEL MENAJE,S.L. |
| 41. | LAULAGUN BEARINGS, S.L. |
| 42. | LISARDY GESTIÓN, S.L. |
| 43. | MERUBA S.L. |
| 44. | MUGABURU S.L. |
| 45. | NORGETIÓN, S.A. |
| 46. | PAPE ARALAR, S.A. |
| 47. | PEGAMO INDUSTRIAL DIVISION, S.L |
| 48. | REINER MEDICAL, S.L. |
| 49. | RTS, S.A |
| 50. | SACYTRANS, S.L. |
| 51. | SALTO SYSTEMS, S.L. |
| 52. | SALVA INDUSTRIAL, S.L.U. |
| 53. | SILCONAS SILAM, S.A. |
| 54. | TRANSPORTES GACERLA IRÚN, S.C.L. |
| 55. | VICOMTEC FUNDACIÓN |
| 56. | ZUCCHETI ESPAÑA, S.L.U |

## ARABAKO GANBERA

## BILBOKO GANBERA

BBVA
Agencia Marítima Condeminas Bilbao, S.L.
Biolid
CEBEK Confederación Empresarial de Bizkaia / Bizkaiko Enpresarien
Equipel
Eroski
Petronor
Sidenor
Lointek

Alkora Grupo Verspieren
Afianza asesores®
Bergé
Cementos Lemona A CRH Company
Iberdrola
Segemar s.a. Servicios Generales Marítimos
Laura Batán
Tamoin
La Escuela Restaurante

Biotermiak
Amesa industrial
BBG Bahía Bizkaia Gas
Cycasa
Aránzazu Hoteles
Entelgy
Compañía de Remolcadores Ibaizabal
Vectalia

El Corte Inglés
Dinof
IR Indumetal Recycling
Murueta Astilleros - Shipyards
Vicinay Cemvisa
Marina
kutxabank
Sarasketa 05/03 Farmacia + Ortopedia
Sader Tratamiento integral de residuos

Altuna y Uria
Federación Nacional de Empresarios Pintores
Navacel Process Industries
Boslan Part of Accenture
tecuni
Tecman
CSP Spain The Ports for ALL
Viuda de Sainz
Tornillería Landaluce

## GIPUZKOAKO GANBERA

euskabea
BERRIUP
Uvesco
LAULAGUN bearings
AQVARIVM
basque culinary center
SILAM
ULMA
basmodec
AROTZGI
Gipuzkoako Arotz Taldea
Asociación Patronal de Carpinteros de Gipuzkoa
ARBASO
LAZPIUR
CAF
biaktion business in aktion
PEGAMO
GUREAK
vicomtech
ADEGI
NORGESTION
HINE
ESTERO INSTALACIONES
autorrecambios GOYERRI
TRANSPORTES GACELA
salva
grupo campezo
neu
GRUPO WISCO
Irizar
TTTGROUP Talent | Technology | Treatments
kuik! DIGITAL SOLUTIONS
GRUPO Ormak
Sabadell
GIPUZKOA HOSTELERÍA OSTALARITZA
CASA ECEIZA TOLOSA
ALGEPOSA GRUPO
RTS SA
González Larrauri
SAN SEBASTIÁN · DESDE 1923
LABORAL kutxa
kutxabank
GIPUZKOA MERKATARIAK FEDERACIÓN
I & I Interalloys & Investment
AMPO
kutxa FUNDAZIOA
elmubas PETFOODGROUP
ZUCCHETTI
matia
i-DE Grupo IBERDROLA
Lacor
Aralar
Reiner / MEDICAL
FAGOR ARRASATE
SACYTRANS
bildutruck right on time!
Ingeteam ELECTRIFYING A SUSTAINABLE FUTURE
SALTO inspiredaccess

# EUSKO GANBEREN
# EGOITZAK

Euskal Autonomia Erkidegoan hiru merkataritza-ganbera daude, Eusko Ganberak aliantza osatzen dutenak, Lurralde Historiko bakoitzeko bat:

cámara de álava
arabako ganbera

Dato Kalea, 38
01005 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Telefonoa +34 945 141 800

**contacta@camaradealava.com**

Cámara
Gipuzkoako Ganbera

Tolosa Etorbidea, 75
20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa +34 943 00 03 00

**info@camaragipuzkoa.com**

CÁMARABILBAO

Errekalde Zumarkalea, 50
48008 Bilbao
Telefonoa 944 70 65 00

**atencionaclientes@camarabilbao.com**

EUSKO GANBERAK






